

Donostia, 2019ko urriaren 31

LARRIALDI KLIMATIKOKO EGOERA GELDIARAZTEKO JARDUEREN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMENA

Aitzole Araneta Zinkunegik, Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikuluekin bat etorritz, larrialdi klimatikoko egoera geldiarazteko onartutako jardueren eta neurrien jarraipena egiteko batzorde ez iraunkor bat sortzea proposatu du.

2019an, hiri eta herrialde ugari aitortu dute larrialdi klimatikoko egoeran gaudela. Adierazpen horrek berarekin dakar lehentasunen ordena berri bat ezartzea, zeinetan klimaren aldaketetara egokitzeko eta horiek arintzeko ekintzek lehentasuna duten gainerakoekiko. Berarekin dakar, baita ere, udaletan dauden baliabide guztiak krisi klimatikoari aurre egitera birzuzentzea, krisi horrek dakartzan arazo guztiakin batera. Larrialdi klimatikoaren aitorpenaren ondorioz, biztanle guztiak krisi ekologikoari eta egin beharreko aldaketa izugarriari buruz hezteko, prestatzeko eta kontzientziatzeko prozesu bati ekin behar zaio.

Irailaren 26ko osoko bilkuran, klima aldaketaren aurka izendatutako Munduko Grebaren jardunaldiaren bezperan, udal gobernua Larrialdi Klimatikoko Egoera aitortzea eskatzen zuen mozio bat onartu zuen. Ondoren, urrian, talde politikoekin eta elkarteekin lehenengo bilera bat jarri da martxan Larrialdi Klimatikoaren aitorpenari buruz eztabaidatzeko; seguru asko 2019ko abenduan egingo da.

Planteatzen dugu beharrezkoa dela ekintza zehatzak garatzea eta informazioko-komunikazioko bide batzuk ezartzea aldizka bilerak eginez, hartuko diren neurri zehatzei jarraipen eraginkorra egiteko

asmoz.

Horregatik guztiagatik, **Elkarrekin Donostia** udal taldeak honako hau aurkeztu du: **DONOSTIAN LARRIALDI KLIMATIKOKO EGOERA GELDIARAZTEKO ONARTUTAKO EKINTZEN ETA NEURRIEN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMENA.**

- **Helburua:** Krisi klimatikoa arintzeko onartuko diren jarduera eta neurri zehatzen jarraipena egitea.

- **Osaera:**

1. Udal talde bakoitzeko kide bat.
2. Gonbidatuak: batzordeburuak gonbidatuta joan ahal izango dira ingurumen elkarte interesdunen ordezkariak, baita hiriko gizarte kontseiluko edo aholkularitza kontseiluetako kideak ere.

- **Iraupena:** 18 hilabete.

- **Bileren erregimena:** hilean behin egingo da, gutxienez.

Sin.: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea